



Baserritarrek ere egin diote ongiitorria Zerkausi berrituari

INAUGURAZIOA ▶ Eskualdeko hainbat sukaldarirekin batera egin zuten atzo Zerkausiaren inaugurazioa ▶ 5



Eskualdeko sukaldariak atzo, Zerkausiko aurkezpenean. NEREA URBIZU



NEREA URBIZU

Gaztetxoak protagonista San Esteban auzoan

TOLOSA ▶ Gaur amaituko da San Esteban auzoko Kultur Astea; Zuberoa auzunearen urteurrena izango da, besteak beste ▶ 5

TOLOSA ▶

Dopina eta kirola mintzagai Leidorren

Amaitu da kirolaren
kongresua ▶ 4

LIRIO DIEZ ▶ GERRA ZIBILEAN ERREFUXIATUA

«Lagun batzuk ez ninduten agurtu gerratik itzultzean»

Gerra Zibilaren eragina jasan zuen
Tolosan bizi den eibartarrak ▶ 7



UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

Saskia bete perretxiko



Irratia piztu dut gaur ere, goizero bezala, eta udazken oparoak banatu dituen perretxikoak jasotzeko aukera izan dut. Atsegina da kotxeko ibilaldi barkatiarako irratiko solaskideei erantzun zorrotzak ematea, arrazoa eman

edo kentzea, ez baitate aurre egiten. Ez dago halako hariztirik, ezta pagadirik ere; mota guztietako perretxikoak aurki daitezke, bezperako esaldi biribilek nahiz mespretxu latzenak. Eta guztiak doaz gure saskira, aukeraketa egiteko denborarik gabe.

Onddoak. Estimatuena. Sendoak eta zabalak, beltzak edo zuriak. Baina ez dira nonahi aurkitzen, ez dira noiznahi entzuten. Arrazoi sendoak enbor trinkoa behar du, eta bareek edo zomorro-

ek jandako ideiak topatzen ditut maiz. Gibelurdinak. Kolore askotakoak. Dotorreak, itxuraz. Baina ermutasunik gabek. Hitz politen atzetik ahuldadea adierazten dutenak. Barea somatzearekin bakarrik pitzatzen direnak.

Zizoriak. Iraunkorrak. Beti gauza bera esaten dutenak, zer esan handiegirik ez eta halere isiltzen ez direnak. Inork deitu gabe ere present direnak, egun batean goroldio tartetik azaldu eta usteltzen ere ez dakitenak.

Amanitak. Erne! Uste baino ugariagoak dira. Goiz-goizetik eguna izorratzeko gaitasuna dute, edota aste osoa. Bada atea zabaltzen dien norbait beti. Eta hor gailenduko dira, maltzur, tente, edozein sukaldetan nahasteko prest. Gainera, onddoen inguruan gehienetan bada amanitaren bat, edo ugari.

Itzali dut irratia, orain saskia hustu behar dut, eta esaldi egokiak gogoan hartzen saiatuko naiz, igande goxo bat igarotzeko asmoz.

GUTUN@K ▶

Eta orain zer? Euskal Herria plazako erresidentziaren irekiera!

Itxaron zerrendatan dauden eta dagoeneko beste eskualdeetako erresidentziara bidali dituzten pertsonen kopurua, 60 baino gehiagokoa da. Egoera larri honek, zuzenean eragiten dien senideen kopurua 1.600 pertsona ingurukoa. Arazoak egunetik egunera okerrera egiten du eta Udalak aurkeztutako aurreproiektua egi bihurtzerako pasako diren urteak asko dira. Beraz, denbora gehiegi pasako zela ikusita, 2006ko ekainaren 15ean, alderdi politikoeekin sortutako lan taldearen aurrean proposamen hauxe egin genuen: «epe motzera, arazo honi erantzun egokia emateko, ireki dezagun berriro ere Euskal Herri plazako Gerontologikoa, Uda-

lak proposaturiko *Makroproiektu* hori gauzatzen den bitartean».

Gerontologikoak 60 pertsonentzako lekua du eta plataformako kideek beti defendatu izan dugu, bere garaian «Diputazioarentzat ere aitzindari izan zen» zentroak arrera egokia emateko moduan jarraitzen duela. Noski denboradi honetan erabili ez izanak eragin dituen hondaketak konpondu eta gero.

Hala ere, gai hauek guztiak, zentro berri hori noizbait irekiz gero ere, konpondu beharreko kontuak dira. Gure proposamenak aldiz, badu udalletearekin ez duen bentaja handi bat, zentro berriak eskatzen dituen 9 milioi euroren inbertsioa egin behar ez izatea. Are gehiago, dirutza hau lortu ezin izana, proiektu honen porrotaren arrazoa izan daitekeela kontuan hartuta.

Alderdi politikoez osatutako lan taldearekin egin genituen hurrengo bileretan, proposamen hau gehiago zehaztu genuen. Kudeaketa,

Iurramendi fundazioaren eskutik etor zitekeela adierazi genien, alor honetan eskarmentu handia duelako eta gainera irabazi asmorik gabeko fundazioa delako. Iurramendi egoitzan 60 ohe gehitzearen pareko litzateke, gasturik txikienarekin. Ordezkeri politikoei beraien tekniko eta alderdikideekin proposamenaren bideragarritasuna kontsultatutako zutela agindu ziguten.

Pasa den irailaren 28an, plataformako kideek, Tolosako Udaleko gizarte zerbitzuetako komisioko lehendakariak lagunduta eta eskuetan kamara bat hartuta, bertan ikusitakoaren frogak edukitzeko, Euskal Herri plazako gerontologikoa bisitatu ahal izan genuen. Itxi zuten eguneko zegoen egoeratik, alde handirik ez zegoela ikusi genuen. (Beraientzako nahiko litzukete gaur egun, bedein-kapen guztiak dituzten erresidentzi askok gerontologikoaren baldintza).

Ikusitakoak, Euskal Herri

plazako gerontologikoaren berrerabilpena ideia indartu du. Egoitza berria errealitate bihurtzen ez den bitartean, soluzio zuzen, aukerako etaa bideragarria izan daiteke alderdi politikoen laguntza egokia izanez gero.

Oraindik, lan taldean aritzen diren politikoen erantzunik ez dugu jaso. Informatuko zaituztegu.

MANU LEUNDA ▶ GERONTOLOGIKO
PUBLIKO BERRI BATEN ALDEKO
PLATAFORMA OSATZEN DUGUN
KIDEEN IZENEAN

Tolosako Antonio Lekuona kalean izandako bigarren sutearen inguruan

Goizeko hiruak aldera sute bat egon zen atzo Tolosako Antonio Lekuona kalean. Us-

tez norbaitek su eman dio bertan dauden eduki ontzietan. Jakin ere badakigu abuztuaren 4an ere horrelako sute bat egon zela eta tartean beste bi bider saiatu direla. Ekintza hau udaletxean behin baino gehiagotan salatu dute bizilagunek, baina udalak ez du deus egin. Badakite eduki ontziak hor kokatzean dagoen arriskua baina begiak itxi. Norena da ardura? Gauza da bizilagunak izuturik aurkitzen direla, gauetan begiak bildu ezinean. Bitartean udala ixilik!! Konponketa lanei buruz ez du ezer jakin nahi, eta eduki ontzietan zer egin pentsatzen omen dabilta. ba, jakin ezazue

bitartean ondorio larriagoak sortu daitezkeela; ez ekonomikoak baizik kalte pertsonalak. Konponketa lan batzuk egin ziren aurreko hilean eta gaur gausean berriro berdin. Noiz arte? Orain arteko kalte ekonomikoak 28.000 eurotakoak da. Bertan adineko jende asko bizi da.

MIKEL IZAGIRRE ▶ TOLOSA

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

**SHANTI
KIROLAK**
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 04 70

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

EZBAIAN ▶ Pobreziaren Egunaren harira, eskualdeko adituen iritzia jaso ditu HITZAK tarte honetan

EMETERIO SORAZU (IBARRATIK MISIO TALDEKO LEHENDAKARIA) ▶

Pobrezia Zero

Gipuzkoako Zero Pobreziaren aldeko plataformak aste honetan zehar ospatzeko ekitaldi puntualak bideratzen ari ditu, gizarte mailan denok gosea eta pobreziaren egoerarekin gehiago solidarizatu ahal izateko.

Urriaren 17a Pobrezia ezabatzeko Nazioarteko eguna izan zen. Eta asmo horrekin bateratuz, hainbat erakunde, komunikabide eta gogoeta luzatzen ari zaizkigu, ezagumenaren ondoren gure ardura handiagotzeko. 2000. urtean Nazio batuen Milurtekoaren Adierazpena sinatu zuten Gobernu eta Estatuak konpromisoa hartu zuten Milurtekoaren 8 Garapen Helburuak betetzeko, gosetia eta pobrezia ezabatzeko lehenengo urratsa izan baitzitekeen. 5 urte geroago, ez dugu asko aurrera egin. Munduko pobrezia ezabatzeko ahalmena daukan lehenbiziko belaunaldia gara, eta ezin dugu aukera alferrik galdu.

Kanpaina hau, Pobreziaren Kontrako Deialdi Globala, nazioarteko koalizioaren baitan dago, eta miloika pertsona ari da mobilizatzen ehun herri baino gehiagotan. Hemen gogoratu nahi ditugu GKE elkarte honekin bateratuta aurrera egin

ahal dezagun zortzi helburu nagusiak:

Laguntza ofizial gehiago garapenerako, hau da, lehenasuna ematea oinarriko gizarte sektoreei, %0,7ko konpromisora heldu arte. Estatu mailan, %0,33ean dago oraindik; Laguntza hobe hori po-breentzat, merkataritza interesetik kanpo eta Milurtekoaren helburuekin bat etorrita. Azken urteetan gosearen zama daramatenak gehiagotu egin dira.

Ordaindu ezineko zorra barkatzea. Herri aberatsek, Mundu Bankuak eta Nazioarteko Moneta Fondoak herri txiroen zorraren %100 barkatu behar dute. Zorra garapenaren truke. Herri txiroen zorra barkatzea eta baliabideak Milurtekoaren Helburuak lortzera bideratzea. Nazioarteko merkataritzaren arauak aldatzea. Oraingoak herri aberatsen eta euren negozioen aldekoak direlako, eta ez dietelako aukerarik ematen herri txiroen gobernuei pobreziaren aurka borrokatzeko, ez eta ingurumena babesteko.

Laguntza batzuk ezabatzea. Herri aberatsen produktuak produkzio kostua baino merkeago esporta ez daitezen, he-

rri txiroen nekazaritza erkidegoen bizimodua hondatzen dutelako. Zerbitzu publikoak liberalizazio eta pribatizaziotik babestea, elikatzeko eskubidea, edateko ura eta oinarriko botikak bermatze aldera.

Helburu hauek pertsona bakoitzetik hasita garapen bidean jartzen saiatu beharra daukagu. Pertsonak gaude norberen ondasun eta baliabideen arduradun izatera deituak. Gure axola eza ez dute erakundeek zuzenduko. Erakundeak ere pertsonen artean moldatuak ditugu. Nahiz maila ezberdinean, denok arduradun izateko, eta pertsona guztien aldeko zerbitzari. Gipuzkoan bertan gure gurasoek inoiz imajinatuko ez zuten neurriko kalitatean bizitzera iritsi gara. Baina gure kalitatearen truke daramagun

POBREZIA EZABATU

«Munduko pobrezia ezabatzeko ahalmena daukan lehenbiziko belaunaldia gara, eta ezin dugu aukera alferrik galdu»

egoismo eta kontsumo arriskua behar bada handiagotzen ari ditugu. Eta egoera hau ez dator inoiz ados munduko gosedun eta pobrezian eroriak daudenak diru laguntza puntual bat eman hutsean.

Zero Pobreziaren ekimena gogoratzean, kalitatea zainduz gainera, solidaritate jarrerak bultzatu behar ditugu. Eta jarrera hauek oso hurbiletik bizi behar ditugu. Gure bizi kalitatearen izenean, kontsumokeriaren haritik ote gauden erne egon behar dugu; bai janari eta edarietan; bai janzkera eta garraio tresnetan; bai gure aste bukaerako hainbat gastu berezi kontrolatuz. Partaide garen erakundeetan Zero Pobreziaren aldeko kanpaina egin eta elkar kutxa osatu. Donostian dagoen elkartetik informazioa eta baliabideak guztiongana hurbildu: www.pobrezacero.org.

Ikasketak egin heinean, gure barne gizakia aberastu eta behartsuenekiko senidetasunera irekiak bizi. Hemen bertan hainbat zerbitzu doaneko elkar banatu ditzakegu: zaharrekin, elbarriekin, etorkinekin, bakartiekin eta abar. Aurtengo udaran bertan hainbat gaztek boluntario gisa beren baliabideak hirugarren munduko zerbitzuan emanak dituzte. Herri txiki eta handietan hainbat komunikabide eta informazio eran Hirugarren Munduko premietara.

GARBIÑE MENDIZABAL (SETTEM HEGO HAIZEA ERAKUNDEKO GIPUZKOAKO ARDURADUNA) ▶

Pobrezia ez da gure kontua

Munduko pobreak gero eta pobreak. Horixe da komunikabideetan argitara daitekeen titularrak gogorrena eta egiazkoena. Baina, sarri, berdin jarraitzen diogu telebista ikusteari edo egunkaria irakurtzeari. Ez da gure kontua.

Munduko 189 herrialdek pobreziari stop egiteko helburuarekin Milurteko 8 Garapen Helburuak finkatu zituzten 2000 urtean. Zer gertatu da sei urteren ondoren? Argazki ederra atera bai baina borondate politikoa etxean utzi zutela. Azken 15 urteetan herrialde aberatsuen laguntza %25 jaitsi da. Posible ote horrelakorik Milurteko Adierazpena sinatu ondoren? Horra hor datuak: proportzioan, 1960. hamarkadan baino laguntza gutxiago eskaintzen dute he-

rrialde aberastuek, munduko biztanlegoaren %40a egunean bi dolar baino gutxiagorekin bizi da eta 20.000 lagun hiltzen da egunero pobreziaren erruz.

Pobreziaren aurka lan egiten duten garapen lankidetzako erakundeak asko dira. Gehiegi akaso. Nazioarteko ekonomia ezarritako neurriak gailentzen diren bitartean jai dute herrialde txiroek pobreziatik irteko. Haiekin elkar-

POBREZIAREN DATUAK

«Biztanlegoaren %40a egunean bi dolar baino gutxiagorekin bizi da; 20.000 lagun hiltzen da egunero pobreziaren erruz»

lanean aritzen diren ehundaka erakundeek lagundu bai baina ez dituzte pobreziaren zulo beltzetik aterako. Ez egitura-neurri ekonomiko garrantzitsuak hartzen ez diren bitartean. Eta horiek multinazional erraldoien esku daude.

Eta zer gara gu hainbeste erraldoien artean? Zenbakiak, zenbaki soilak baina garrantzitsuak. Are eta gehiago kontsumitu guk orduan eta aberatsagoak erraldoiak eta orduan eta pobreakoak pobreak. Erraldoiak, ordea, oso sentikorak dira zenbaki horien erostekarekintzen aurrean; beraz, izan gaitezen gure kontsumo ekintzen erantzule eta adieraz diezaiogun erraldoiei guk ere badugula zer esanik. Izan ere, gure kontua ere bada eta.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldecohitz.a

KIROLAK ▶

Barriolak final laurdenerako txartela lortu du Gurean

E. EZEIZA

Final laurdenerarako txartela lortu zuen herenegun gauean Abel Barriola pilotariak. 22 eta 17ko emaitzarekin irabazi zion Azkoitiko Gurea Frontoian Asier Olaizolari. Orain, honi esker, Patxi Ruizen aurka jokatu beharko du datorren partida.

Barriolaren sakeak min handia egin zion Olaizola I.ari eta hau izan zen gakoe-tako bat. Hala, hamar tanto egin ahal izan zizkion sakearekin. Hala ere asko sufrututako partida izan zen, Olaizolak lan handia eman baitzuten.

Belloso bidean geratu da

Herenegun, Balmasedan jokatuak partidaren, Mendizabal goierritarra gailendu zitzaion Belloso tolosarrari. Hala, Asegareko promozio-ko Lau 1.º erdiko Txapelketan, Aratz Mendizabal finalerdietarako sailkatu zen. 22-10eko emaitzarekin amaitu bazen ere partida, norgehiagoka borrokatua izan zen. Zaldibiarra orekatua izan zen bere jokoa, Belloso aldiz, gora-behera asko izan zituen eta hainbat tanto galdu zituen.


Onsalo Aresoarra bikain

Diario Vasko Txapelketaren barruan, nagusien mailan jokatu zuen herenegun Mikel Onsalo Iruritarrekin batera. Hauek, Zazpi-Iturri pilota eskolako Baez II.aren eta Mitxelenaren aurka lehiatu ziren, eta 22-17 garaitu zituzten. Gogotxu eta indarrez aritu zen aresoarra norgehiagoka honetan, izan ere «etxean», Leitzako Amazabal frontoian jokatu zuen ostiraleko partida.

TOLOSA ▶ KIROLAK

Kongresuko azken egunean, dopina eta kirola mintzagai

Atzo, azken saioetako batean Iñaki Arratibelek, jarduera fisikoa eta dopatzeko substantzien inguruan hitz egin zuen



Iñaki Arratibel, kirol medikuntzan aditua eta Andoni Imaz, Kirol zinegotzia atzoko hitzaldian. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Atzo amaitu zen Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunaren Nazioarteko Kongresua. Azken saioetako bat, Iñaki Arratibel doktoreak, kirol medikuntzan aditua denak zuzendu zuen. Honek, jarduera fisikoa eta dopatzeko substantzien erabilerearen inguruan hitz egin zuen.

Oinarrian, medikuntzaren ikuspegitik, aktibitate fisikoa-ren helburua, osasuna hobetzea da. Bestalde, kirolari profesionalen kasuan, errendimendua hobetzeko hainbat tresna erabiltzen dituzte, horien artean, entrenamentu bereziak, botikak... Hala, maila goreneko kirolari horientzat, kasu batzuetan osasun ona mantentzearen helburu horretan, beharrezkoa da substantzia berezi horiek hartzea. Baina batzuetan, erabilpen okerrak, edo gehiegizkoak, dopajera eraman dezake.

Gai honen barruan, Jonat-

IÑAKI ARRATIBEL

KIROL MEDIKUNTZAN ADITUA

«Substantzia bakarra egin da dopatzeko helburuarekin, sendagai gisa sortu dira gainontzekoak»

«Dopajea tranpa bat da, kirolaren espirituaren eta kompetibitate garbiaren aurka doana»

han Vaughnthers txirindulariaren kasua aipatu zuen. Honi, Tourra korritzen ari zela, liztor batek hozka egin zion begian. Baina hau sendatzeko behar zuen botikak kortikoidak zituenez, eta hau, galerazita dagoenez, medikuak ez zion eman. Kasu horretan, medikuak kirolariaren osasunaren aurka egin zuen.

Arratibelek behin eta berriz

azpimarratu zuen mintzaldian, dopajea «tranpa» bat dela, kirolaren espirituaren aurka doana, eta zuzenean, kiroleko kompetibitate garbiaren aurka jotzen duena. «Oso zaila da, merkatuan dauden sendagai guztiak erabili daitezkeen edo ez zehaztea», azaldu zuen tolosarrak, horregatik, «botika hauetan markagailu bat jarzea litzateke egokiena, naturala den edo ez jakiteko». Baina hau, sendagai indusientzat gastu handia izango litzateke. Bestalde, Arratibelen ustetan, dopin kontrolatan, «aztertzeko egokiak diren metodoak aurkitu behar dira», hau da, eztaba-daezinak diren emaitzak ematen dituztenak. Hala, positibo ematean, ez dago dudarik, ziurra da substantzia hori hartu duzula. Izan ere, egun egiten diren kontrolen artean, ezberdintasunak daude, eta batetik bestera, emaitzak alda daitezke.

Medikuak atzo azaldu zenez, orain arte, botika bakarra sortu da dopatzeko helburuarekin, gainontzeko guztiak sendagai gisa ekoiztu dira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidariak. Libre dauden lanpostuak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritza, udalak, erakunde publikoak. 943 31 37 82.

Harreragileak-administrari laguntzaileak. Erakunde publikoetarako behar dira. 943 31 37 82.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tebuia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.

Autoa. Renault Clio autoa salgai. 80.000 km ditu. 5.500 eurotan.

TOLOSA ▶

Azoka alai Zerkausiaren inaugurazio ofizialarekin

Trianguloa utzi eta berriro ere Zerkausian kokatu dira, ohiko azoka egiteko

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso animoso hasi zen goiza partean. Zerkausiaren estreinuak eta eskaintzen duen itxurak zerikusia haundia izan dute egun hauetako bizitasunarengan.

Eskaintza ere oso zabala izan zen postu guztietan. Perretxiko kopurua eta zerrenda adibidez, egundokoa suertatu zen. Onddoak, ziza horiak, kuletroak, gibelurdinak eta nikaloak izan ziren salgai, gainera, inoiz baino prezio baxuagoan.

Berdura plazan ere izan ziren berrikuntzak. Dagoeneko hasi dira Santu Guztien eguneko erramuak eta zentroatok eskaintzen, eta datozen egunetako enkarguak jasotzen. Atzo aurtengo lehenengo krisantemoak saldu ziren 10 eta 4 eurotan, tamainaren arabera.

ATZOKO AZOKA ▶

Prezioak	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Krabelina	3,20	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak

Tolosako babarruna	8,00	12,00
Lekak	2,50	3,50
Ardi-gazta	14,00	18,00
Inbaurra	3,00	4,00
Kuletroa	28,00	33,00
Gibelurdina	20,00	-
Onddoak	7,00	18,00

Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Tipula	1,75	2,00
Letxua	1,00	-
Aza	2,50	-
Arraultzak	3,50	-

Jose Luis Belloso

proiektuak
obra zuzendaritza eta altzarigintza

arquitectura-de-interior

Erremontari, 5. behea / 20400 Tolosa-Gipuzkoa / Tel.: 943 67 52 48 / Faxa: 943 67 34 58 / joseluisbelloso@telefonetel.az

TOLOSA ▶ EKONOMIA

Zerkausia inauguratu dute baserritarrek

Txorixoa, salda eta onddo-nahaskia izan ziren jateko; postuetan, jateixe askotako sukaldariak izan ziren



Zerkausiaren ondoan bi sukaldarik jatekoak zerbitzatu zituzten. N. U.



Zerkausiko beirazko egituraren egindako lehen kontzertua

N. Urbizu ▶ Atzo arratsaldean Tolosako Bandak kontzertua eskaini zuen Zerkausian, goizeko giro onari jarraitasuna emanez. Beirazko egitura berrian doinuek oihartzun atseginak sortu zituzten. N. U.

NEREA URBIZU

Duela urte baino gutxiagoko irudia berriz errepikatzen hasi da Zerkausian: izan ere, betiko postuak betiko lekuan ikusi ahal izan ziren, baina, hurrengo asteetan zehar errepikatzen zaila izango dena izan zen atzokoan: eskualdeko hainbat jate-xeetako sukaldariak, alegia.

10:00etan juxtu, Jabi Uhalde eta Felix Belauntzaran sukaldariak salda sutan jarri zuten, handik ordu erdira jendeari zerbitzen hasteko. Jende askok hartu zuen txorixo eta onddo nahaskiarekin batera.

Merkatarien postuen artean 11:00ak aldera eskualdeko hainbat jate-xeetako sukaldari azaldu ziren errosketak egitera, horien artean Matias Gorrotxategi, Peio Dhoyarababal, Pedro Ruiz, Felix Garrido, Juanjo Pascual eta Mikel Zuaznabar. Martin Berasategi sukaldari ezaguna ere azaltzekoa bazen ere, ez zen agertu azkenean. Baina etorri ziren guztiak izan zuten, bai, zer edo zer erosteko aukera.

Bertako giro «alaia» lagun askok ikusi zuten: atzoko azoka eguna izatez, jendetsua izan baitzen, Zerkausi guztian zehar banatuta. Batzuk dastatzen, eta beste batzuk erosten.

TOLOSA ▶ KULTURA

San Esteban auzoko Kultur Astea, denontzat

Ferialekuan eta inguruan jolas guztiak egin zituzten: helduagoak musean aritu ziren



Haurren jolasen aurretik altxorraren bila aritu ziren lau taldeko. N. U.

N. URBIZU

Tolosako San Esteban auzokoek aurten XIX. Kultur Astea bizitzeko ari dira. Atzokoan, arratsaldetik aurrera izan zuten zertan parte hartu bizilagunek.

Ferialekuan haurrak 16:30ean altxorraren bila hasi ziren. Musean, aldiz, beranduago hasi ziren, bikoteen faltan baitzebiltzan. Azkenean, 8 bikote animatu ziren, baina denak gizona ziren.

17:00etan ere haurrak jolasetan hasi ziren. Talde ezberdinak egin zituzten, eta eguraldi onarekin urarekin prestatutako probak egin ahal izan zituzten.

Gaur 09:00etan herriko txistulariekin diana izango da, eta

ordu bat beranduago base-rrietan zehar trikitixa doinuak entzun ahal izango dira. 11:00etan, aldiz, meza izango da auzoko hildakoaren alde, San Franzisko elizan. Ondoren toka txapelketa antolatuta dute eta animatzen den orok izango du parte hartzeko aukera.

Auzoko Zuberoa eremuan, berriz, haren 50. urteurrena oroitzeko eta ospatzeko ekitaldiak izango dira baita ere. 12:00etan puzgarriak eta 13:00etan herri kirolak: San Esteban-Torre lehian. 14:30ean auzokide bazkarian luntxa eta zikiro jatea dastatuko dituzte, eta gorputza gehiago alaitzeko Algara taldearekin dantzatu ahal izango da.

TOLOSA ▶ GAZTETXEA



Skateek sortutako txispak

N. Urbizu ▶ Graffiti erakusketa eta VI. Skate Lehiaketa antolatuta zuten atzo Bonberenean. Skatea ikusten jendea izan zen, eta parte-hartzaileek erakustaldi berezia eskaini zuten. Gauean Codigo Norte eta Bad Sound System taldeen kontzertuak izan ziren. N. URBIZU

ALDABA ▶ UGANE AUZOKO JAIK



Autoentzat ere lekuri ez

N. Urbizu ▶ Uganen autoak ez ziren sartzen. Jende andana bildu zen atzo auzotoan, Uganeko jai egunaz gozatzeko. VIII. Txirindulari igoeran ume taldekoak bitartean beste batzuk pintxo eta mojito egin berriaz gozatu zuten. N. URBIZU

TOLOSA ▶ EUSKAL KIROLAREN EGUNA



Bi selekzio saskibaloian

N. Urbizu ▶ Katalunia eta Euskadi: futboleak bakarrik ez, eta gazteak ere ez. Atzokoan beteranoak izan ziren Usabaleko zelaian jokatzeko, baloia eskuetan hartuta. Partida hasi aurretik lurralde bakoitzeko ereserkiak abestu zuten, ondoren jokatzeko hasteko. ESTI EZEIZA

GIZARTEA ▶

Silpes, gorrak enplegatzen

Amaroz auzoan dago elkarte; pertsona gorrei lan munduan dituzten zailtasunak gainditzeko laguntzen diete bertan lan egiten duten profesionalak



Silpesek Tolosan dituen hiru langileak. Ezker-eskuin: kudeatzailea, zeinu-hizkuntza interpretea eta aholkularia, hurrenez hurren. NEREA LIZARTZA

NEREA LIZARTZA

Silpes pertsona gorren enplegua eta prestakuntza sustatzeko zerbitzua eskaintzen duen elkarte da. 2000. urte inguruan sortu zen Euskal Gorra Euskal Herri mailako gorren federazioaren laguntzarekin. Ondoren, duela hiru urte inguru iritsi zen zerbitzu hau Tolosara; modu honetan, eskualdeko gorrei lanean izan ditzaketen hanbat hutsune betetzen laguntzen diete.

INEM —Enplegurako Zerbitzu Publikoa— da Silpes elkarteak martxan jarraitzeko beharrezkoak dituen diru laguntzak ematen dituen elkarte. Era berean, laguntza horien trukean urtero proiektu bat aurkeztu behar dio Silpesek INEMi, eta azken honek ontzat eman behar du erakundeak aurrera jarrai dezan. Arrazoi hori tarteko dela, urtarilaren 16a bitartean eskandio dute gorren arretarako zerbitzu hau, ondoren proiektu berria aurkeztuko baitiote INEMi eta honek onartzen badu, berriro ekingo diote bezeroen arretari —gutxi gorabehera ekainetik aurrera—.

«Gure bezeroei beharrezko arreta eskaintzea eragozten badu ere proiektua aurkeztu beharrak, oraindik ez dugu beste biderik; beraz, zerbitzua ez da urte osoa, batez beste sei hilabetetako baizik», azaltzen du Silpeseko kudeatzaileak.

Pausoak eta langileak

Silpesera joateko ezinbestekoa da hitzordua eskatzea bertako langileekin. Ondoren, hainbat dokumentu ere eraman behar dira: gorraren minusbaliotasun agiria, Nortasun Agiri Nazionala, Curriculum Vitae, egindako ikastaroen tituluak. Lan Bizitzaren ziurtasun papearak edota INEMeko agiria ere aurkeztu behar dira. Behin hitzordura joanda, bezeroak duen arazoaren berri emango du; langabezia egon eta lana nahi izatea, daukan lanarekin gustura ez egotea edota lanean duen bilera edo antzekoetarako zeinu-hizkuntza interpretea behar izatea dira Silpesera jotzen dutenek normalean eskatzen dituzten zerbitzuak.

Lehen pauso hori eman oste-

LANERATZEA

Lanean hastean komunikazio arazoak izan ditzaketen arren, laster moldatzen dira guztiak egoerara

an, Silpesetik harremanetan jartzen dira enpresek eta euren bezeroaren berri ematen diote; «normalean eragozpenak egoten dira gorra den pertsona bat kontratatzerakoan; komunikazio arazoak ikusten dituzte enpresa buruek eta horrek beldurra ematen die». Hala ere, «abantailak ere badiotuela ikusten dutenean —esaterako, gizarte segurantzaren ordaintzerakoan beharpekin— iritzia aldatzen dute» azaltzen dute Silpeseko arduradunek.

Hiru pertsona daude Tolosako Silpesen bezeroen zerbitzura; lehenik lan kudeatzailea; bere lana batik bat enpresekiko edo sindikatuekin harremanetan jartzea da, eurei jakinaren gainean jartzeko Silpesek beraien lantegietako pertsona

PROFESIONALAK

Hiru langile ari dira lanean Silpes elkarte; kudeatzailea, lan aholkularia eta zeinu-hizkuntza interpretea

gorrentzat eskaintzen dituen abantailak.

Bestalde, lan aholkulari bat ere badago; lan munduan murgiltzeko beharrezkoak diren aholkuak ematen dizkio joaten den bezeroari.

Azkenik, zeinu-hizkuntza interpretea dago; bezeroak edozein egoeretan ulertzeko zailtasunak baditu, behar duen lekura joateaz arduratzen dena. Hiru langileen artean ez dute komunikazio arazorik, zeinu-hizkuntza baitakite guztiak.

«Zerbitzu osoa ematen diogu guregana etorritzen denari; izan ere, lana lortu ostean jarraipena egiten dugu eta arazorik egonez gero konpontzen saiatzen gara. Badakigu lanaldiaren hasieran komunikazio arazoak egoten direla eta horiek gainditzeko eta ahal den

neurrian konpontzen saiatzen gara», gaineratzen dute.

«Kontuan izan behar dugu gorra izan arren, lana normaltasun osoz egiteko gaitasuna dutela; halere, egon daitezkeen komunikazio arazoak gainditu egin behar dira. Zorionez gero eta enpresa gehiago dira gorrei zuzendutako erraztasunak jartzen dituzten lantegietan; esaterako, lan amaierako txirriarekin batera argitxo bat piztea», dio zeinu-hizkuntza interpreteak.

Gorra zer den azaltzeko unean desberdintasun handiak daudela azaldu dute Silpesekoek. «Gorra izatearen minusbaliotasun agiria dutenak kontsideratzen ditugu gorre gizaratean, baina jende ugari dago minusbaliotasuna lortzeko mailako gorria duena eta ez dakiena. Era berean, gutxi entzunda gorra izan zaitezke, edota ezer ez entzunda ere bai; beraz, gorra diren guztiak ez dutenez egoera bere, lan munduan sartzen direnean ere egoera desberdinak bizi ohi dituzte».

Ikastaroak eta harremanak

Lantzean behin, jendeak egiten dizkieten eskaeren arabera ikastaroak antolatu ohi dituzte Tolosako silpesekoek; esaterako, iaz informatikako oinarrizko ikastaro bat antolatu zuten, baina ez zitzaizkien titulazio ofizialik entregatu ikasleei. Hala ere, bezeroak lanerako formazioa eskatzen badiote, Silpesekoak Langai edo INEMekin harremanetan jartzen dira eta bertako ikastaroetara bidaltzen dituzte; izan ere, bi erakunde horiek titulazio ofizialeko ikastaroak eskaintzen dituzte.

Silpesera joaten denak egiten duen lan eskaeraren arabera eta duen formazioa kontuan izanda, erakundetik bertatik arduratzen dira Tolosa inguruan dauden ikastaroak aurkitzeaz eta bezeroaren zerbitzura jartzeaz. Gainera, ikastarora joan eta ulertzeko zailtasunak izanez gero, zeinu-hizkuntza interpretea joaten da ikaslearekin ikastaroa hobeto uler dezan.

Silpesek Amaroz auzoko auzoetxea 31 behean du egoitza. Orduetgia goizetan astelehenean ostiralera 08:00etatik 14:30era eta arratsaldetan, ostera, 15:00etatik 18:15era —astelehenean eta ostiraletan izan ezan—. Harremanetan jartzeko, bestalde, bi telefono dituzte 943 67 03 81 edo 666 63 71 58 hain zuzen ere.

LIRIO DIEZ ▶ FRANTZIAKO KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN ERREFUXIATUA

«Gerratik itzultzean, lagun batzuk ez ninduten agurtu»

Frontean ez zen aritu gaztetxea zelako, baina Gerra Zibilaren eragina jasan behar izan zuen urte askotan zehar

JOXEMI SAIZAR

Lirio Diez (Eibar, 1920) bost urterekin etorri zen Tolosara bizitzera, bere aita Galo Diez lanera hona destinatu zutenean. Aita CNT sindikatu anarkistako buruzagia izan zen estatu mailan. Gaztetxo zela, Lirio errepublikazaleen aldean bizitu zuen gerra eta ondoren Frantziako hainbat kontzentrazio esparru ezagutu zuen.

Nongoa da zure familia eta nola iritsi zineten Tolosara?

Aita, Galo Diez, bilbotarra zen eta ama, Claudia Maiza. Oteokoa (Araba). Zortzi seme-alaba izan zituzten eta azken biak Eibarren jaio ginen, beste guztiak Gasteizen. Ni bakarrik gelditzen naiz bizirik. Aita Singer josteko makina fabrikari egiten zuen lan Eibarren eta Tolosara destinatu zuten.

Zein ikasketak egin?

Eskola Munizipalean ikasi nuen, Gorosabelen. Irakasleak esan zion aitari eta ezin zitxidala ikasketak ordaindu erantzun zion. Ahalmena izan eta ezin estudiatu, hori gertatzen zen orduan. Dirudunek bakarrik zuten aukera. Solfeo eta flauta ikasi nuen. Gero Errepublikako gobernauk, gureak, langileen unibertsitatean sartu ninduen.

Non harrapatu zintuen Gerra Zibilak?

Abuztuaren 11n, Leaburutik zetozen nazionalak. Aitak etxe-tik atera behar genuela esan zigen, ezer hartu gabe. Uzturreko tiroek zubi Berrian jotzen zuten. Donostira eta handik Bilbora joan ginen, Hotel Carlitona. Ama Areetara bidali zuten Tolosako beste batzuekin: Anita Pandal, Pepa katalandarra... Aita gobernura destinatu zuten, organizazioak han nahi zuelako iparraldeko ordezkatzeko. CNTko komite nazionala idazkariorde nagusia izendatu zuten. Libertad musika bandan sartu nintzen Bilbon,

baina utzi egin nuen musika, belarri onik ez nuelako.

Bilbon tolosar gehiago ba al zegoen?

Gure bandan ez, baina Larrañaga batailoi sozialistako bandan Peñafiel anaiak zeuden. Gero Sacco y Vanzetti eta batailoi horietan tolosar asko zeuden, tartean nire anaiak Alejandro, Felix eta Germinal. Borrokaldi batean 12 tolosar hil ziren: Collado, Melchor gorra... Arreba bat, Aurora, Zaragozan harrapatu zuen gerrak, han zuelako senargaia eta gerra osoa Francorekin egin zuen.

Beraz, frontean ez zinen ibili?

Frontean batere ez. Gazteegia nintzen. Berehala fronteak hausten ari ziren. Zaurituta zegoen anaia Santanderrera ebakuatu zuten eta handik Frantziara eta anaia zaharrenak, Felix, tenientea zena, ama, Elisea arreba eta ni hartu eta Ampuerora ebakuatu gintuen. Bi egun pasa genituen itsasuntzi ingles baten zain. Santanderrera joan gintezkeela abisatu ziguten eta itsasuntzi horretan Frantziara joan ginen, Dijonera. Errefuxiatu bezala egon ginen. Haurrak eta emakumeak ginen denok. Hilabete bat edo bi egon ginen han, hiruko eta koinata, Germinalen emaztea.

Non hil zen aita?

Aita Valentzian hil zen 1938an, uztailaren 25ean, 58 urte zituela. Heriotz naturala izan zela esan zuten, itota, baina ez dut sinesten.

Nolakoa zen?

Hizlari sutsu eta ona, nazioarte mailan errekonozitua. Antikomunista. Ideia politikoengatik inor ezin zela hil uste zuen eta beste bandoko jende asko lagundu eta salbatu zuen: karlistak, falangistak... Ondo moldatzen zen jende guztiarekin.

Nola atera zineten Espainiatik?

Nazionalak aurrera zihoazenean, gu Bartzelonatik atera eta anaiak kamioneta batean ama,



JOXEMI SAIZAR

AITA

«Hizlari sutsu eta oso ona zen, nazioarte mailan errekonozitua; politikagatik inor ezin zela hil uste zuen»

ESPARRUA

«200.000 pertsona geunden hondartza batean, zerua gainean eta lurra azpian; jende asko hil zen han»

GERRAOSTEA

«Dena lapurtu ziguten, etxea, altzariak, liburuak...; zegoen liburutegirik onenetakoa zen gure etxekoa»

arreba, koinata eta ni sartu eta Figuerasera eraman gintuen. Handik mendiz gora Pirinioak oinez pasatu genituen 1939ko otsailaren 11n. Frantziako kontzentrazio esparruan sartu gintuzten Argeles sur Mer-en. Jende pila zegoen, eskutik helduta joan behar zen ez galtzeko. Emakumeak eta gizonak separatu gintuzten. 200.000 pertsona geundela hondartza batean zioen garaiko prentsak, zerua gainean eta lurra azpian, besterik ez. Jende asko hil zen han. Ingalaterraren zegoen koinataren bidez jakin genuen arreba eta koinatua Dradignan eman ginen han, hiruko eta koinata, Germinalen emaztea.

Gurs-eko zelaira eraman al zintuztetan?

Bai, han hobeto geunden, barrakak genituen. Doctoriarena eta Urta tolosarrak ere han izan zirela uste dut. Anaiak Ingalaterrara joatea lortu zuen, emazteak eskatuta, eta ni bakarrik gelditu nintzen. Gero zortea izan nuen, 18 urtekoak askatu egin behar zituztela esan zutenez, urte bat kendu eta atera nintzen Gurs-etik. Urte askotan egon nintzen urte bat gutxiagorekin. Gero Frantziaren erdialdera joan nintzen ur saneamenduan lan egitera, leku hartatik ateratzeagatik, eta ama eta arreba Dradignan-eko zelaatik atera eta niregana ekartzea lortu nuen. Beste ge-

rra tokatu zitzaigun, han, mundukoa. Maginot lerroa hautsi zenean, frantsesak denak iheska atera ziren. Ama Villafrance de Ruerquera eraman zuten kamioi batean eta arreba-rekin Perpignaneko mugara jo nuen. Harrapatu eta berriro Argeles sur Mer-eko zelaira eraman ninduten, baina barrakak zeuden orain.

Ateratzeko aukerarik ez al zenuen?

Ameriketara joateko aukera izan nuen, baina etxera itzultzea pentsatzen genuen. Kontzentrazio zelaian nengoa frantsesa pixka bat ikasi nuen. Interpreteak eta kaligrafia onekoak behar zituzten, presentatu agintari militarrengana eta bulegoan sartu nintzen. Baina konturatu nintzen munduko gerrako okupazio indarrak ginela eta alde egin nuen, Francok eman zuen amnistiarekin. Arreba kontzentrazio esparrutik atera nuen eta amarekin elkartu nuen. Perpignanera kontsularengana joan eta soldaduskara aurkeztu nahi nuela esan nuen.

Nola izan zen sarrera Espainian?

Muga pasa nuen Port Boun 1941eko apirilaren 23an, nire urtebetetzean, eta Figueraseko gaztelura eraman ninduten. Gero Reus-eko (Tarragona, Katalunia) kontzentrazio esparru-

ra bidali ninduten eta hiru bat hilabete egin nituen aske gelditu arte.

Nola izan zen itzulera Tolosara?

Lau urteko soldaduska Burgo- sen egin ondoren, 1946an itzuli nintzen Tolosara, ia hamar urte egon gabe. Agurtuko nindutela uste nuenak ez ninduten agurtu. Baina handik 10-12 urtera, Iruña kafetegian nengoa, horietako bat mozkortuta sartu zen nire lagunik onena zela esanez. Begiratu, lepotik heldu, eta lagunak ezagutzeko mozkortuta ez zela egon behar erantzun nion, beste egun batean, normal zegoenean, eskua eskatuz gero emango niola esan nion. Eta etorri zen. Txorakeria izan zen. Nik uste dut guk irabazi izan bagenu, horrela ez nuela jokatu besteekin, alderantziz, lagundu egingo nieke.

Zer zenuten etorritakoan?

Ezer ez, dena lapurtu ziguten, etxe ederra, altzari onak, liburuak... Zegoen liburutegirik onenetakoa zen gure etxekoa.

OHARRA ▶

Elkarrizketa osoa eta orain arte sail honetan argitaratutako artikulu guztiak osorik gure webgunean ikus daitezke.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. Informatikako ikastaroa antolatu dute MAEkoek. Lizardi Etxean eskainiko dituzte eskolak. Telefono zenbakia: 943 37 69 79.

Asteasu. Hilaren 28an Usarrabi kantu taldeak bultzaturik lehenengo kantu bira herrian egingo dute. Ondoren, kantu bazkaria antolatu dute. Asteartea baino lehen deitu behar da parte hartzeko: 687 27 31 63.

Zizurkil. Tolosaldeko Mankomunitateak hondakinen kudeaketaren inguruko gida ateratu du. Zizurkilgo gaurko Azoka Berezian stand bat jarriko dute 11:30etik 13:30era, eta herritarren artean banatuko dute.

Villabona. Irrintzi elkartearen 25. urteurrena dela eta, Andoaingo Musika Eskolako Bandaren saioa, 12:30ean, Txistularien plazan.

Ibarra. Kapoeira ikastaroa Belabietako kiroldegian; 10-14 urtekoak 09:00etatik 10:30era; 15 urtetik gorakoak 10:30etik 12:00etara.

Tolosa. Abesbatza Lehiaketako sarrera solteak salgai daude TEEK (CIT) Emeterio Arrese kalean 2 duen bulegoan.

ZINEMA

Tolosa. *Asterix y los vikingos* filma gaur, 17:00etan.

Tolosa. *World Trade Center* filma gaur, 19:30ean. Bihar, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

Bihar
Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
Ibarra. Ugarte, MT. Amaroz auzoa, 9. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegan* (errepikapena).

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Pila-pila maite dituzte

TOLOSA ▶ Haurrek pazientzia handiz itxoin duten eguna iritsita, badute Bonberenean aurkezturiko pailazo maitagarrien DVDa eskuragarri



Pirritxek eta Porrotxek *Maite Zaitut* kanta dantzatu eta abestu zuten Trianguloan, txarangakoekin. N. U.

NEREA URBIZU

Bonbereneako txarangaren laguntza Pirritx eta Porrotx pailazoak Tolosako kaleetan zehar ibili ziren atzo goizean, aurrean txaranga eta atzean haur eta guraso mordoarekin.

Ondoren Bonberenean aurtengo DVDa aurkeztu zuten jendearen aurrean. Lan honetan Juan Gorriti eskultorea, Migel Mari Eloseggi biologo leizarra, Gipuzkoako erlezainen elkarte kide bat eta Euskal Herriko ijito elkartearen kolaborazioak izan dira, besteak beste eta Bonberenean izan ziren batzuk —Gorritiren orde emaztea azaldu zen—. Beraz, azken lan honetan erleez eta eziaz, hartzez eta ijitoez gehiago ikasiko dute txikiek, besteak beste.

Txikientzat Bonbereneako aurkezpena pisutsu samarra izan bazen ere, azkar ahaztu zitzaizen, globoak eta posterrak banatu baitzituzten. Txarangarekin bukatu zen aurkezpena.



Haurrak, txaranga eta pailazoak argazkirako prestatu ziren. N. U.



Haurrek lotsa eta emozioaren arteko nahasketa sentitu zuten. N. URBIZU

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Pedro Arrospide (Lizartza).
Gaur 76 urte. Emazte, seme-alaba eta biloben partetik belarri-tira handi bat.



ZORIONAK AXUN ETA JUANITO
Gaur ospatuko dugu beraien 25. ezteie urtemuga. Pastelen zai egongo gara. Urte bakoitzeko pastelxo bat?

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...